

HAU 'DOGLAND' DA HEMEN ZAKURREK GASTATZEN DUTE MUNDUKO GIZAKI GEHIENEK BAINO DIRU GEHIAGO

Planeta honetako herrialde aberatsak moral bikoitzaz ari dira, egiturazko hipokrisiaz: besteren ondasunak eta jendeak zurrupatuz antolatu dute bizimodu oparo bat, ongizate honen ezkutuko kosteak bezala eragindako kalteak zanpatuei esternalizatuz. Herritarrek ere konplize bihurtzen ditu sistema perbertso honek, beren historia faltsutzen duen imajinario kolektibo bat eraikiz. Horrela mintzo da Stephan Lessenich soziologo alemana.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Jo dezagun badela herrialde bat, Dogland, osatua AEBetako etxeetan dauzkaten txakurrez. Maskota horien mantenua kostatzen den dirutza kontabilizatuko bagenu txakurren soldatatzat, *Dogland*-eko biztanleak munduko biztanleen batez bestekoaren %40 gainetik leudeke diru-sarrerei dagokienez.

“Ongi bizi besteren bizkarretik: Mendebaldeko oparotasunaren alde ezkutua” liburuan [“*Living Well at Others' Expense*”] jatorriz, aurtun argitaratu dira gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenak] Stephan Lessenich soziologo alemanak *Dogland* darabil azaltzeko munduaren arazoa ez dela soilik berdintasun eza, aitzitik, herrialde garatuetan bizi garenotako asko garena injustizia hori betikitzearen konplize. Egilea, Stephan Lessenich (Stuttgart, 1965) Municheko unibertsitatean ari da irakasle eta lau urtez Alemaniako Soziologia Elkartearen lehendakari izana da.

David Rodríguez Goyes Osloko (Norvegia) unibertsitatean irakasle ari denak, honela nabarmendu du Lessenichen liburuaren garrantzia. Azken hamarkodotan intelektual askok erakutsi dute zein bidegabea eta desorekatua den aberastasunaren banaketa gaurko munduan.

1950eko hamarkadatik ohikoa zen ekonomistek aipatzea *baliabideen mada-rikazioa* adierazteko biodibertsitatearen aberats diren herrialdeak kondentatuta daudela gerra, txirotasuna eta zapalkuntza jasatera. Eta 1980ko hamarkadatik

mundu osoko gizarte mugimenduek salatu dute injustizia. Hala ere, Iparraldeak Hegoaldeari egiten dion zampaketa azaltzetik harago, Lessenichek landu du intelektualek askoz gutxiago eztabaidatu duten beste gai hau: nola gizarteak ez duen ikusi nahi batzuen eta besteen mundu mailako aukeren banaketa injustua.

Delako *amets amerikarra* [*American dream*] eta honek berekin daraman meritokraziaren idea dira gaur nagusi mundu osoko kontzientzia kolektiboan, horregatik uste dugu, batetik, jende *arrakastatsuak* bere pribilegioak zor dizkiola lana gogotik egin izanari; eta, bigarren, pribilegio horiek edonoren eskura daudela baldin eta behar bezain gogor lan egiten badu”.

“Lessenichek erakutsi digu –idatzi du Rodriguezek *The Ecologist* mitikoaren adarra den *Resurgence* hilabetekarian– pribilegio horiek gehien bat heredatu egiten direla, bai zuzenean familia barruan edo bai, estrukturaliki, nazio baten barruan eta lana latz egitea ez dela sartzen ekuazioan. Hamar urte baino gehiagor aritu naiz lanean munduaren hegoaldeko baserriar komunitateekin eta Lessenichen argibideok ez didate ezustekorik eragin. Alabaina, injustizia hain hurbiletik ukitu arren, neuk ere joera dut ahazteko nire gozamen asko sarritan oinarritzen direla beste jendeen eta naturaren sufrimenduetan”.

Stephan Lessenichek berak joan den udan plazaratutako “*Hipokrisia kolek-*

tiboaren amaiera” artikuluan saiatu da ildo horretatik esplikatzeko Europako populismo eskuindarren azken urteotako gorakada: onartuta ere gizarte barruko desberdintasunak handitu direla Europa osoan, datu sozioekonomikoek ez dute esplikatzeko populismoa nola ari den goraka klase ertainetan, baita segurtasun gabeziarik nozitzen ez den maila soziale-tan ere. Zerk elikatzen du uhin populista hori hasi Danimarkatik eta Poloniaraino, Austria eta Erresuma Batutik paseaz, leku hain urrun eta ezberdinetan?

ESTERNALIZAZIOA BOOMERANG GISA BUELTAN

Erantzuna –dio Lessenichek– zera da: Europa osoan jendea ohartzen hasi dela Mendebaldean ezarrita dagoen erreprodukzio sozial eredu, sekula ez bezalako ongizate ekonomikoa eta egonkortasun politikoa ekarri dituen kapitalismo demokratikoaren eredu soziala, bere mugetara ari dela iristen eta ez dela betirako luzatuko.

“Orain, munduko migrazio gero eta ugariagoa Europako ateetara iristen ari denean, milaka pertsona itota hiltzen direnean *Mare Nostrum* delakoan, klimaren aldaketa ez bakarrik Ozeano Bareko uharte urrun batean baizik eta gure alderdietan ere nabaritzen hasi garenean... oraintxe konturatu gara, azkenean, bizi garena beste mundu batean bageunde bezala, planetaren beste leketan bizi duten miseriari orain arte babestuta egon garen leku batean, pixkanaka gal-



TURISTEI SALTZEN

KOLONBIAKO CARTAGENA
DE INDIAS HIRIAN KALEKO
SALTZAILEAK EGUZKIA
HARTZEN ARI DIREN JENDE
ABERATSEN ARTEAN.

tzen ari garen kokagune pribilegiatuan”.

Desjabetze eta zampaketa global hau bideragarri egiteko, herrialde aberastsek beren naturari eta jendeen lanari ematen dieten balioa ukatu egiten diete herrialde azpigaratuei. Eta besteen baliabideak ustiatzeak eragindako kosteak –ekonomikoak, sozialak, ekologikoak– kanporatu egiten dituzte: etekinak eta produktibitatea geratzen zaizkie herrialde *lehiakorrenei*, kalteak bueltan doazkie herrialde ahulenei. Hori da esternalizazioaren funtsa.

“Oraingo berrikuntza da esternalizazioa indartu egin dela, nahiz eta iraunkortasunaz, garapenerako laguntzaz eta globalizazioaren eragin perbertsoen konpondu beharraz erretolika handiak egon. Kontsumoa, energia edo baliabide naturalen erauzketa bezalako adierazleek erakusten dute okerragora goazela.


Orain gainera boomerang efektu bat ari gara ikusten: esternalizazioa bueltan datorrigu Mendebaldera, migrazioekin eta klimaren aldaketarekin”.

Europar, dio Lessenichek, ez dago ekoizpen inozorik, are gutxiago kontsumo inozorik. Herritar europarrok dauzkagun gizarteetan lan eginarazten diegu, bai modu ilegalean edo bai modu legal baina miseriazkoan, etorkin afrikarrei etxalde industrialetan edo Hegoamerikako etorkinei etxebizitza partikularretan, eta aldi berean esaten da ezin direla errefuxiatuak errezibitu, gizarteok beren ahalmenak gainezka eginda dauzkatelako.

Azkenean, sistemak bere izaera lausotzeko sortuta daukan imajinarioarekin herritar guztiak hartzen ditu konplize: “Sistema hau okerra da, egitura honek ukatzen dizu pertsona duina izan ahal

izatea. Behartzen zaitu beste batzuei min egitera, baita nahi ez baduzu ere, herrialde honetako herritar izate hutsagatik. (...) Baina zeure burua bakarka kulpitzeak ez du deusterako balio, soluzioa kolektiboa izango da derrigor. Kolektiboki erabaki dugu ez jabetzea gure bizimoduaren ondorio eta eraginez”.

Jende asko ohartzen da honela jarraitzerik ez dagoela, Lessenichentzako hori erakusten du Berdeek Alemanian hartu duten indarra. Baina aldi berean Berdeek ere jendeari proposatzen diotela entzun nahi dutena: klimaren aldaketari aurre egingo diotela baina bizimodua gehiegi aldatu gabe, izatekotan hegazkina gutxiago erabiliz. “Kontsumitzeko eta ekoizteko modua aldatu beharra dauka. Gutxiago kontsumitu behar dugu, gutxiago ekoiztu; azkenean, gutxiago edukitzea da kontua”. ●





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com